



NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KOOPERATIBEN FEDERAZIOAREN BATZORDEA IXTEKO MINTZALDIA

**(Hotel Jardines de Uleta – VITORIA-GASTEIZ)
2019-05-21**

Eguerdion denori,

Agurtu nahi ditut nola ez, bereziki, Pablo Durana, Martín Uriarte, Juan Bautista Jauregi, Iñaki Nubla eta hauekin gaur goizean, Batzar honen hasieran, konseiluko parte zinetenei.

Eskerrik asko, zuek posible egin duzuelako ni gaur zuekin egotea Batzar honen itxieran.

Jardunaldi honen hasieran betetzen zenituzten karguak aipatu gabe egin dut agur, baina ez da kasuala izan. Zuen izenez agurtu zaituztet; izan ere, lehenengo eta behin, zorionak eman nahi dizkizuet zuen ausardiagatik, zuen apustu berriarengatik. Ez da erraza zuzendaritza-kontseilu batek gaurko batzordearen esku jarri dituen eta duela 30 urte zuek emandako antolamendua aldatzea ekarriko duten erabakiak hartzea. Are zailagoa, Euskadiko Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioa erakunde bizia eta aitortua izan dela eta dela aintzat hartuta.

Pablo Durana presidentek bere gutunean gogorarazten duenez, federazioa 1989an eratu zenuten, 1982ko Euskadiko Kooperatiben Legearekin. Orain, euskal kooperatibismoaren gainerako mugimendu ordezkariarekin fusionatu zarete. Eta errealitate hori dator Eusko Legebiltzarrean Kooperatiben Lege berria izapidetzen ari denean; ziur nago legea hil gutxi barru onetsiko dela. Harrezkero mundu kooperatiboak izan dituen aldatetek eragindako araudi-tresna berria, zuen eta administrazioaren erronkei erantzun behar diena. Zuen etapa berrirako zuek oinarritzko gisa zehazten dituzuen argudio berak.

Euskal kooperatibismoaren ordezkarietako eta lobbyrako sektore anitzeko antolamendu bakarra sortzearen aldeko apustua egiten duzue, guztiontzat -berezkoentzat eta besteentzat- erraz identifikatzeko moduko marka bakarra duenaren aldekoa; enpresa-sinergiak eta eskalako ekonomiak optimizatzaren aldekoa, eta kooperatibek kudeaketaren, finantzaketaren, sozietate-egituraren hobekuntza eta merkatuarekiko egokitzapena ekarriko duten produktu berrietara, tresnetara eta jardueretara duten sarbidea erraztearen aldekoa.

Zorionak batzorde osoari, eman duzuen urrats irmoagatik; zalantzarik gabe, etorkizunari eratzen dituzuen kooperatibentzako askoz ere berme gehiagorekin egingo diozue aurre. Zorionak, egiten dakizuela erakusten jarraituko baituzue.

Zuen jarduera-memorian 2018. urteko zailtasunak nabarmendu dituzue, eta, hala ere, Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Federazioan dauden nekazaritzako elikagaien kooperatiben balantze positiboa egiten duzue.

Nekazaritzako errentak % 5,2 egin zuen gora, 2017aren aldean, zifra Gobernuaren Nekazaritzako Elikagaien Behatokitik neurtuta, eta, nahiz eta ekoizpenak % 2,1 jaitsi eta prezioek % 5,3 egin gora, kooperatibek ekitaldi ona izan duzue, nagusiki.

Zorionak, halaber, emaitzengatik, horiek kooperatiba bakoitzaren, bazkide bakoitzaren eta langile bakoitzaren konpromisoaren, indarraren eta ahaleginaren ondorio baitira.

Nekazaritzako elikagaien 62 kooperatibei; 9.286 bazkideei, eta 687 langileei.

Nekazaritzako elikagaien kooperatibak elikagaien industria baino gehiago zarete, askoz gehiago; landa-garapena zarete, eta, “landa hustea”z hitz egiten den garai honetan, gure landa-eremuko herri asko garatzen jarraitzea posible egiten duzuenak eta egingo duzuenak zarete, ekonomikoki garatzen, bai, baina pertsonekin, beren lanaren etekinez bizi daitezkeen pertsonekin, gizarteari oinarrizko elikagai osasungarriak ematen dizkioten pertsonekin. Ziur nago guztion artean, zuon eta administrazioaren artean, belaunaldiaren erronkarentzako erantzunak aurkituko ditugula.

Beharbada, kooperatibetatik ustiategiak kudeatzeko eredu berrietan egin beharko da aurrera eta, horrela, ustiategiekin lotuta ez dauden gazteak sartzeko aukera eman eta nekazaritzako elikagaien ekoizpenaren abenturan hasteko egoera bideragarrietan ez dauden profesional zaleak hartu. Nolanahi ere, zuen esku gaude, eta Ekonomiaren Garapeneko Sailarekin lanean ari gara, sektore horretarako langile gehiagoren problematika aintzat hartuta.

Eta, halaber, ingurumen-orekaren eredu zarete, eta ez dut zertan orain zehaztu, baina kontuan izan behar ditugu sektorearentzako erronka zehatzak eta gizateriarentzako erronka: klima-aldaketa.

Batzordea irekitzean, Ekonomiaren Garapeneko Sailaren ordezkari izan duzue, eta orain neuk dut, Lan eta Justiziako sailburua naizen aldetik, batzordea ixteko ardura.

Batez ere, nire sailak nekazaritzako elikagaien kooperatibekin duen konpromisoa adierazi nahi dizuet. Ez dira hitz hutsak, eta badakizue: etengabeko baterako lana da, eta federazioarentzako, ERKIDERentzako eta Goi Kontseiluarentzako laguntza esplizitua da Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzatik, zuen enpresen alde egiten dugun ageriko apustua adierazteko dugun modurik onena.

Ziur gaude kooperatibismoa funtsezkoa dela lurralde-garapenerako eta gizarte-kohesiorako.

Hori dela eta, gizarte-ekonomiaren printzipio eta balioak sustatzen jarraituko dugu, eta, ekintzailtza kolektiboaren formula gisa, kooperatiba gehiago eta hobeak sortzeko eta finantzatzeko beharrezko neurriak bultzatuko ditugu.

Hitz horiek ahal dudan leku guztietan errepikatzen ditut eta, horien bidez, zuzentzen dudan sailean ezarritako lan-lerroari egokitzen zaizkio, baina nire uste oso ideologikoa eta nire konpromiso politikoa dute iturburu. Betiere beste aukera batzuk gutxietsi gabe, esan diezazueket erabat koherentea dela sozialista gisa identifikatzea eta gizarte-ekonomia modalitate guztietan defendatzea.

Legegintzaldi honen hasieran, gizarte-ekonomia sustatzeko eta indartzeko partidak areagotzeko konpromisoa hartu genuen. Lortu genuen lehen bi ekitaldietan, eta benetan diotsuet honetan, nahiz eta aurrekontu-luzapenarekin egon, beste areagotze bat lortuko dugula.

Kooperatiba gehiago eta hobeak helburu dituzten dirulaguntzen programak sustatzen jarraituko dugu.

Bai Nekazaritza Kooperatiben Federazioak bai elkartutako enpresa askok Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak deitzen dituen laguntza-lerro guztietara jotzen duzue. Horiek hainbat alderditara zuzenduta daude:

Ekintzailtza eta enpresa-egiturak indartzea; langileen prestakuntza; langileak kooperatibetara sartzeta, asoziazionismoa eta enpresen arteko lankidetzak sustatzea, eta asistentzia teknikoa, kudeaketa-tresna egokiak ematen dituenak.

Adosten ditugun programa hauetan edo beste batzuetan ere zuek aintzat hartzen zaituzteguela jakin dezazuen nahi dut.

Izan ere, adostasuna da giza eta politikaren logikaren oinarria, eta, hori horrela, eskerrak eman nahi dizkizuet, berariaz, zuei ere, Kooperatiben Lege Proiektuaren inguruan lortu duzuen adostasunagatik. Hasieran planifikatutako legegintzako egutegia betetzen ari gara, eta espero dugu kooperatiben munduarekin lortu dugun adostasunak legebiltzarrean talde politiko guztien akordio handia ere ekartzea eta Kooperatiben Lege berria errealitate bilakatzea.

Halaber, dakizuen bezala, nekazaritzako elikagaien kooperatiben kontuak ere aurreikusitakoak dira. Izendapenez gainera, aldi baterako ordezkapen gisa bazkideentzako nekazaritzalanak egiteari dagokionez. Titulartasun partekatuko erakunde diren pertsona bazkideen edo izaera juridikorik ez duen edozein erakunderen egoera juridikoa argitu da, bai eta kooperatibarekin duen harremana ere, segurtasun juridikoari begira. Landa-ingurunearen zerbitzura dagoen erakunde gisa kooperatiba-mota horren inguruko ikusmolde komunitarioari hobeto egokitzen zaion erantzuna eskaini da; horrek osagai argi bat du, gizarte-erantzukizun komunitarioa. Azkenik, bazkide ez diren hirugarren pertsonetara eragiketen inguruko guztia ere egokitu da.

Azken batean, zuen eta gure artean elkarrekin planteatutako gaiak dira, eta horiek laster Kooperatiben Lege berria izango dena eratzea nahi izan dugu.

Ezagutzen dut zuen lana; oso atsegina da Euskadin barrena ibili eta egiten duzuen ikustea. Araba eta bertako soroak eta uztak ikustea; produktu bikainen prestaketa-lanak ikustea... Izan ere, barruan zuen lana dute, eta hori da labelik edo izendapenik onena. Nik atsegin handiz ezagutu eta bisitatu ditut zenbait nekazaritza-elikagaien kooperatiba, besteak beste, Udapa, Bodegas Covila edo Trujal Cooperativo la Equidad de Moreda. Jonek eta Jokinek, duela gutxi, Garaia bisitatu dute, Mungian, Nekazaritza ministroarekin.

Oroitzapen berezia dugu bisita horiena guztiena, eta zuzendaritza-kontseiluetako presidente eta kideekin eta langile bazkideekin lanaren errealitatea eta pertsonen “beren” proiektuarekin eta beren enpresarekin duten konpromisoa eta ahalegina partekatu izana ere berezia izan da.

Nire taldeak ere zuen konpromiso horren berri eman dit, zuekin Frantziara eta Bavariara antolatu eta egin dituzuen bidaiak partekatu dituzuenen. Denek nahi dute hurrengo bidaiak zuekin partekatu, edonora dela ere.

Oro har, aukera paregabea izan da, zuen erronkak eta proiektuak hurbilgotik ezagutzeko, eta Sailak enpresa jasagarrien, integratzaileen eta kalitateko enpleguaren sortzaileen eredu gisa babesten jarraitzeko duen konpromisoa berretsi didate.

Pasa den apirilaren 10ean eta 11n, Oñatin, Kongresua egin zen, Lanaren Nazioarteko Erakundearen ehungarren urteurrenaren barruan.

Kongresua gure Sailak antolatu zuen, eta Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen eta LNEren Espainiako Ordezkaritzaren elkarlana izan zituen. Bertan, hainbat herrialdeetako eta gizarte-eragiletako –kooperatibak barne– ordezkariak parte hartu zuten.

LNEk, hausnarketa-esparru gisa, honako hau planteatu du: “Nahi dugun lanaren etorkizuna”. Hura amaitzeko, datorren ekainean, Genevan, Nazioarteko Konferentzia egingo da.

Euskaditik, ondorioen zehaztapenari ekarpena egin nahi izan genion eta, beraz, dekalogo bat prestatu eta Oñatiko Kongresuan aurkeztu nuen. Dekalogoak, funtsean, honako printzipio hauek batzen ditu:

- Lan-harremanen eredu berrituan aurrera egitea eta hura enpleguaren kalitatera bideratuta egotea, bizitza-proiektu duinak garatzeko premisa gisa.
- Lanbide-trebakuntza eta gaitasunen etengabeko egokitzapena bermatzen dituen eredu, lehiakortasunaren eta jasagarritasunaren elementu gisa.
- Helburu nagusi gisa emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzea duen eredu.
- Lan-jardueretan pertsonen osasuna eta ongizatea babesten dituen.

- Pertsonak enpresan duten parte-hartzea areagotzea bultzatzen duten baldintza objektiboak eta tresna legal eta konbentzionalak sortzeko gai dena.
- Eta, azkenik, oro har pertsonak pixkanaka enpresa-proiektuetan inplikatzen bideratuko dena.

Nire ustez, ez da ahalegin handirik behar, zuok Nazioarteko Konferentziara eraman ditugun printzipioetan islatuta ikus zaitezten. Zuen ekintza eta errealitatea bat dator, erabat, filosofia horrekin.

Bide batez, zorionak eman nahi dizkizuet kooperatibismoarekin eta Euskadirekin 50 urte baino gehiagoko konpromisoa betetzen daramatzazuen 30 kooperatibei; kooperatibismoaren nazioarteko egunean esker ona jasoko duzue, Bilboko Euskaldunan. Zorionak, benetan, eta espero dut egun horretan bertan ere zuzenean zorionak eman ahal izatea.

Zorionak zuei guztioi. Zorionak, halaber, zuzendaritza-kontseiluan emakume bat sartzeagatik. ERKIDE zareten aldetik etapa berria duzue aurretik, eta ziur nago, erabat, etapa arrakastatsua izango duzuela.

Merezi duzue.

Eskerrik asko.